

TALOAREN EGUNA LEITZAN

Datorren Irailak 11an, igandea, Taloa izango da protagonista Leitzan. Izan ere, beste urte batez, Plazaolako Partzuergo Turistikoak Leitzako Udaletxearen lankidetzaz eta Nafarroako Gobernuko Turismo eta Kultur departamentuaren laguntzaz “Talo Eguna” ospatuko du, bertara gerturatzeko direnek gastronomia, ohitura eta Herri Kiroletaz gozatu ahal izateko.



Aurten ere, tradizioarekin jarraitzeko, Saralegi eta Villabona talo-egileak izango dira Merkatua irekiko dutenak, eta horien ondoren mota guztietako ekintzak ospatuko dira: artoa, ura eta gatzarekin egindako torta oinarri duten plateren erakusketa zonaldeko jatetxe eta tabernen eskutik (aurten Txoko, Musunzar, Elostia, Peritza eta Beatrizenea dira euren talo bereziekin harrizko gaituztenak), zonaldeko artisauen postuak, talo egiteko eta baserri tresneriaren erakusketa edo Herri Kiroiak. Izan ere, hirugarrenez ospatuko da Leitzan Euskal Herriko Aizkolari Gazteen Txapelketa zeinetan Eneko Saralegi, Eneko Otaño, Eloy Corchero, Julen Olano eta Joxean Etxeberriak lau 45 ontzako eta bi kanaerdiko moztu beharko dituzten.

Bisitariak era aktiboan parte hartzeko ekintzak ere egonen dira, txikienentzako talo egiten ikasteko tailerra, gurdi ibilaldiak edo baserriko animalien erakusketa. Guzti horretaz gain, 100 euroko, 50 euroko eta 25 euroko sariak irabazteko aukera ere egonen da Eskualdeko Talo Lehiaketan, egun berean eta dohainik izena emanez.

Gauzak horrela, Irailak 11an mendeetan zehar gure baserrietan oinarritzko elikagaia izan den produktu honen promozio eta berreskurapena sustatuko da, ohiturei jarraituz, egun borobila pasatzeko aukera izango dugun bitartean.